

# Turismoaren bilakaera Euskal Herrian

2012an Euskal Herrira etorritako bidaiari kopurua ez da apenas aldatu aurreko urtearekin alderatuta; gaualdiak, ordea, nabari egin dute behera

Iparralden kokatu ziren 2012an sektore honek sortutako zuzeneko enpleguen erdia baino gehiago

Euskal Herriko ekonomian, oro har, eta zehazki gure herrialdeetan turismo sektoreak gero eta pisu handiagoa du. 2012an zuzeneko 13.858 lanpostu sortu zituen, eta horietatik 8.475 Iparralden kokatu ziren. Aurreko urtearekin alderatuta, Hegoalden turismoak sortu zituen lanpostuek beherantz egin zuten (-%6,1), aldiz, Iparraldeko lanpostuak sortzeko dinamikari eutsi zion 2012an (+%3,4), Baionako Merkataritza Ganbarako datuen arabera. Hala, egun Iparralden aktibo dauden pertsonen %6 turismoan dihardute.

Alabaina, ezinbestekoa da turismoa Euskal Herriko ekonomia-jarduera anitzeko testuinguruan ulertzea. Izan ere, badira Euskal Herriko zenbait zonalde zentzu horretan estrategiarik garatu ez dutenak, eta, ondorioz, pertsona asko eta askoren enplegua zerbitzu sektore eta turismora loturik dago, horrek suposatzen duenarekin: aldikako lana eta baldintza prekarioak. Ipar Euskal Herrian gero eta zabanduagoa dagoen fenomeno da hau, "[Kontratazioa Hegoalden 2013](#)" txostenean jaso genuen moduan.



## Edukia

### Turismoa Euskal Herrian

Sarrera	1
Datuak 2012 eta 2013	2
Hausnarketarako	2
Baliabide grafikoak	3



Euskal Herriko ekonomia eta gizarte  
garapenerako behategia

[www.gaindegia.org](http://www.gaindegia.org)  
[www.basqueinfo.net](http://www.basqueinfo.net)

komunikazioa@gaindegia.org  
943 304 365

**HAUSNARKETA**

Turismoa jarduera onuragarria izan daiteke lurralde batentzat, beti ere jarduera aniztasunaren alde egingo duen estrategia ekonomikoan asmatzen bada eta hainbat zonalderen iraunkortasuna eta urte osoko kalitatezko enplegua lortzera bideratzen bada. Aipatu beharra dago, zenbait zonaldeetan turismoarekiko gehiegizko dedikazioa dugula; esaterako, Ipar Euskal Herrian, non lan merkatua aldi baterako lanez eta baldintza prekarioz josita dagoen. Egoera horrek bertako gazteen ihesa eragiten du.

Zein da Euskal Herriak sustatu behar duen turismoa? Gure herriaren edertasunak ikertu eta esplotatzeaz gain, garrantzitsua da lurraldea eta honen baitan dauden zonaldeak ikertzea, ikuspegi integral eta sozioekonomikoz.

Azken urteotan azpiegitura turistikoa eraginkorra garatu dugu, Euskal Herria kalitatezko helmuga turistikoa eta irisgarria bilakatu duena, baina ez dugu herri ikuspegiz elkarbanatutako estrategia bat garatu; are gehiago, herrialdeen arteko lehia bizitu dugu.

Hala, gaur egun ez dago jarduera ekonomiko gisa turismoak beharko lukeenari buruzko gogoetarik; are gutxiago Euskal Herri osoarentzat plan estrategikorik. Ez dago euskal lurralde osoa hartzen duen turismo portalik ere.

**Iturriak:**

INE eta Comité departamental de turismo de Bearn Pays Basque

4,24 milioi pertsonak ostatu hartu zuten 2012an Euskal Herriko geografian barna. Halaxe diote Comité departamental de turismo de Bearn Pays Basque eta INE erakundeek. Kontuan hartu behar da 2011tik 4 milioi zifra gainditu dugula, 2009-2011 bitartean turismoak bizitu zuen goraldiari esker. Datuen arabera, badirudi joera hori mantendu egingo dela 2013an ere, nahiz eta azpimarratu beharra dagoen aurreko urtearekin alderatuta 2012an %0,7 murriztu dela bidaiari kopurua.

Herrialdeka, Bizkaia da bidaiari gehien jasotzen dituen herrialdea, baita azken urteotan hazkunde handiena izan duena. 2012an 1,18 milioi bidaiari zenbatu zituen, alegia 2009 urtean baino 244.070 bidaiari gehiago (+%26,1). Horrek esan nahi du 2012an Euskal Herria etorri ziren lau bidaiarietatik bat Bizkaia izan zuela helmuga, eta EUSTATen arabera, horietako %62,8 Bilbo izan zuten helmuga.

Aipagarria da, gainera, Bizkaia dela 2012an bidaiaririk galdu ez duen herrialde bakarra. Arabak, ordea, galera handiena bizitu du (-%5,5), nahiz eta esan dugun bezala kontuan hartu beharra dagoen 2009-2011 epealdian herrialde denetan

bizitu izan zen gorakada. Iparraldeko barnealdeak ere beherakada nabaria jasan du (%4,7), eta dagoeneko hiru urte dira beheranzko joera hori duela. Gainontzeko herrialdeek ere bidaiariak galdu dituzte (-%2-%3 tartean).

**2013rako behin -behineko datuak**

2013ko urrira arteko datuek (udako epealdia barne hartzen dutenak noski), ondorio gazi-gozaok uzten dizkigute. INEren arabera, Hegoaldeko bidaiari kopuruak %0,9 gora egin du 2012ako epealdi berarekin alderatuta, baina gaualdiak %1,3 jaitsi dira. Bidaiari igoera Nafarroa Garaian (+%6,3) eta Gipuzkoan (+%2,5) gertatu da; aldiz, Araban beherantz egin du nabarmen (-%9,2), batik bat, Gasteizera joaten ziren bidaiarien beherakadaren ondorioz.

Era berean, Hegoaldera datozen bidaiarien egonaldiak beheranzko joera du oraindik ere, eta, hala, okupazio tasa %44,1 da, 2012ko epealdi bera hartuta hiru hamarren baxuagoa.

**Gaualdiak**

Gaualdi kopuruak behera egin du Euskal Herrian 2012an. Guztira 7,89 milioi gaualdi zenbatu ziren, portzentajea 2011 urtearekin alderatuta bi puntu gutxiago (-%1,9). Hegoalden gaualdiek behera egin badute ere (-%0,7), galera nabariagoa bizitu du Iparralde (-%5,7) batik bat, Lapurdiko kostaldean, hor pilotzen baitira 2012ko gaualdien %85,2. Hala, ondoriozta dezakegu bidaiariak baino gaualdiak jaitsi direla Euskal Herrian, gurean pasatzen duten denboraren batz bestekoa jaitsi egin baita.

2012an, bidaiari bakoitza 1,88 egun egon zen Euskal Herrian. Herrialdeka, egonaldi luzeenak Iparralde barnealdean (1,98 egun) eta Gipuzkoan (1,96 egun) kokatu ziren, eta motzenak Iparraldeko kostaldean (1,81 egun). Izatez, egonaldiaren murriztea Euskal Herrian Lapurdiko kostaldearen efektuari lotuta dago, eta hein txikiagoan Bizkaiaren efektuari.

Datuok islatzen dutenez, Euskal Herri osoaren okupazioa 2012an %46,6 izan zen, alegia, 2011an baino lau puntu baxuagoa. Orokorrean Iparraldeko okupazioa (%55,9) altuagoa izan zen Hegoaldekoa baino (%42,6). Aipagarria da Iparraldeko kostaldeko datua dela Euskal Herriko altuena: %59,6. Gipuzkoak jarraituko lioke (%51,7), eta okupazio baxuenen artean daude Nafarroa Garaia (%32,6) eta Araba (%40,0). Kontuan hartu beharra dago azken urteotan bizitu dugun bidaiari kopuruaren gorakada ez doala proportzioz okupazio tasarekin bat, herrialde guztietan gertatu baita turismoari lotutako azpiegituren handitzea.



### Hotel-establezimenduetan igarotako gaudien bilakaera Euskal Herria, 2000/12.

	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013 urria (met.)
ARABA	-5,7	-5,2	3,4	15,5	11,4	-2,6	-9,2
BIZKAIA	5,0	-3,9	-1,5	10,2	16,9	2,8	-2,5
GIPUZKOA	-1,4	-1,3	-0,7	6,6	4,0	-2,0	0,9
IPARRALDEKO BARNEKALDEA	-8,5	-6,5	10,7	-2,1	-2,2	-4,8	-
IPARRALDEKO KOSTALDEA	-0,8	-4,0	0,9	-1,4	3,8	-5,9	-
NAFARROA GARAIA	1,3	-2,5	-5,7	0,5	14,0	-3,3	1,4
HEGOALDEA	0,9	-2,8	-1,9	7,0	11,5	-0,7	-1,3
IPARRALDEA	-2,0	-4,4	2,3	-1,6	2,9	-5,7	-
EUSKAL HERRIA	0,1	-3,3	-0,8	4,7	9,3	-1,9	-

Iturria: INE eta Comité départemental de Tourisme du Béarn Pays Basque.

### Hotel-establezimenduetan batez besteko egun kopurua. Euskal Herria, 2006/12.

	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013 urria (met.)
ARABA	1,81	1,79	1,83	1,78	1,83	1,88	1,89
BIZKAIA	1,77	1,75	1,78	1,83	1,92	1,87	1,83
GIPUZKOA	1,95	1,93	1,98	1,94	1,95	1,96	1,91
IPARRALDEKO BARNEKALDEA	1,89	1,80	1,80	1,93	1,98	1,98	-
IPARRALDEKO KOSTALDEA	1,97	1,91	1,96	1,89	1,89	1,81	-
NAFARROA GARAIA	1,91	1,88	1,90	1,88	1,89	1,87	1,79
HEGOALDEA	1,85	1,83	1,86	1,85	1,89	1,88	1,85
IPARRALDEA	1,96	1,89	1,93	1,90	1,90	1,83	-
EUSKAL HERRIA	1,89	1,85	1,89	1,88	1,91	1,88	-

Iturria: INE eta Comité départemental de Tourisme du Béarn Pays Basque.

Laguntzaileak:

